



Comunidades Cristianas Fe y Justicia
Fede eta Justizia Kristau Komunitateen Elkartea

FEDE ETA JUSTIZIAREN ESPIRIALTASUN LAIKOA

Bilbao, 2000ko uztailaren 1a.



1.SARRERA

Espiritualtasun hitza “espíritu” (pneuma) hitzetik dator. Pertsonaren espiritua izatearen atalik sakonena da: motibazioak, ideala, utopia, pasioa, bizi eta borroka eragiten dion arrazoi mistikoa eta besteak kutsatzen dituena. Gizakiok zenbat eta kontzienteago bizi eta lan egin, zenbat eta gehiago landu baloreak, ideala, mistika, aukera sakonak eta utopia, hainbat eta espiritualtasuna gehiago dugu eta hainbat eta aberatsagoak eta sakonagoak gara. Espiritualtasuna gure bihozberatasunaren neurgailua da.

Guretzat, kristau laiko garenontzat, espiritualtasuna Jesusen Espirituari jarraitzen dion bizimodua da.

Jainkoaren izate hirukoiztarra, Aita, semea eta espiritu santuak Jainkoaren espiritua ez dela dohain hutsa esan nahi du. Ez da gizakiari ematen zaion dohaina, baizik eta Jainkoa bera da historian haragitzen dena.

Espirituak gure gizatasunera garamatza, gure bizitzara, gizarte eta historia zehatz batean murgilduta dagoena. Egoera zehatz honetan gure izate kristaua garatu behar dugu. Beraz, espiritualtasunak komunean ditugun sustrai soziokulturaletara eramaten gaitu, eta era berean, bakoitzaren ezaugarrietatik sortzen den dibertsitate eta aniztasunera.

2. ESPIRITUALITATEA ZER DEN

Espiritualtasuna guretzat da Jesusen espiritutik Fede eta Justiziako laikoen izaera bizitzea.

“Espiritualtasun kristaua”-k, era honetan ulertuta, ondorengo adierazten du:

- Normala izatea Nazareteko Jesusen Espirituan bizi dugula, hau da, ez dugu ezer gehitzen gure bizitzari, baizik eta espirituari eraldatzen uzten diogula.
- Otoitza bizitzako dimentsiotzat ulertzen dela, Jesusen jainkoaren bakarkako harreman kontzientea eta espiritualtasuna agortzen ez duena.
- Norberaren bizimoduaren ezaugarriak (lan mota, ezkontzea edo ez, seme alaba kopurua, heziketarako ardura, adina, etab) eta Jainkoaren deia gauzatze anitzak onartu behar direla. Espiritualtasun anitzak komunioko teologia eta eklesiologia behar du eta ez berdintasunezkoa



Agiri honetan, gure xedea da gure elkarte Fede eta Justiziako kideen espiritualtasun ezaugarriak zehaztea da. Jakin badakigu Jesusen espirituak eta bere ekintzak onartzeko dugun jarrera desberdina izango dela kidearen arabera eta egoera pertsonala eta sozialaren arabera. Fedea eta Justiziako kide baten espiritualtasun laikoa beste edozein kristaurena izango da oinarrian, baina laikoa izateagatik ezaugarri berezi batzuk edukiko ditu eta beste batzuk Fedea eta Justiziako nortasunari dagozkionak.

3. ESPIRITUALTASUN KRISTAUAREN OINARRIZKO BAIEZTAPENAK

3.1. Fede kristaua bizitzea

Jesusen fedea eta egitekoa betetzen maila pertsonalean eta komunitatean. Gure bizitza proiektua Jainkoarenganako fedean oinarritzen da eta Jesusek iradokitako gizaki ereduarekin bat egiten du. Honetaz gain, bere anaitasun unibertsaleko iradokizuna historian iragarri eta gauzatzeko egitekoa banatzean eta jainkoaren seme alabak izatean, kristauok, maila pertsonalean eta eliz komunitatean, bere izenean lan egiten dugu.

3.2. Erreinuarekin konprometitua

Kristaua da esaten duena bizi duena eta beraz, gizakiari eta bereziki behartsuei Jainko ama/aitaren maitasuna askatzailea iragartzen du. Jesusen jainkoa jainko haragitua da jainkotiar ez denean, gizatiar arloan, maitasunezko egotearekin (Enmanuel), gizakiaren duintasuna goretsiz eta historia ezagutzera emateko lekua bihurtuz. Honetaz gain, Jainkoaren esperientzia jakinaraztea gizon zehatz batengan, Jesus judutarrarengan, gauzatzeak adierazten digu txiroak, bekatariak eta umildutako pertsonak direla Jesusek aukeratutakoak bere ekintza askatzailea gauzatzeko.

3.3. Jainkoarekin harremanetan

a) Harreman bizia, pertsonala eta komunitatekoa Espirituarekin gure ekintzak Jainkoaren egitasmotara egin ditu eta gure historian berritasuna, ustekabea eta geroaldia gehitzen ditu.

b) Harreman hau elikatze bitarteko, denbora eta leku zehatzen bidez.

c) Gure eguneroko bizitzako gertakari guztietan sumatzen dugu.



4. LAIKO IZATEAGATIK DITUGUN EZAUGARRI ESPIRITUALAK

Vatikano II.ak adierazten duen legez, “kristau” eta “laiko” hitzen artean harremana dago esanahiaren aldetik. Laiko edo sekularren ezaugarriek bat egiten baitute Jainkoaren herriko kideen ezaugarriekin. Pertsonak jainkoaren herriko kideak bataioa eta aitortpena sendotzaren bidez bihurtzen dira. Ontologia, kristauaren izatea, laikoa izatea da eta beraz, laikoa izateak ez dakarkio ezer berririk kristaua izateari. Bereztasun bakarra izaera zehatza edukitzea da, kristau izatearengandik bereizten dena ikuspuntu edo itxuran erlijiosoekin alderatuz gero.

Ikuspuntu honetatik espiritualtasun laikoaren ezaugarritzat ditugu:

4.1. Espiritualtasuna izan munduarentzat eta munduan

- a) Jainkoak egindako eta gizakiarenak diren natura, gizartea eta historia onesten dituen. Jainkoaren ontasunak munduan sortzean begiespena eta eskerrak emateko jarrera sortzen du. Gizakiaren ekintzaren balore jainkotiarra ere onesten da.
- b) Gizakiaren historian gertaturiko zatiketak eta gatazkak heriotza, gaiztakeria eta injustizian islatzen dira. Espiritualtasunak hau dena onartzen du. Egoera hauen aurrean gizakien zalantzekin bat dator.
- c) Fede eta Jainkoaren esperantzatik jaiotzen dena zentzuzkoa den historia eta geroaldia duen mundua ahalbidetzen diguna.
- d) Munduaren eraldaketaren ardura hartzen duena Jainkoaren Erreinuaren baloreetan oinarrituz, bizi garen tokietatik mundu zabalera.
- e) Aniztasuna osatzeko ahalegintzen dena etnia eta kultura guztietako ahotsak entzunez. Kristau guztiekin eta sinesmen erlijioso guztiekin mintzatzen dena eta baita aukera sozio eta politikoekin ere.

4.2. Gizakiaren garapenaren alde apustua egiten duena

- a) Pertsona guztien duintasuna bermatzen duen aurrerapen kulturala bultzatzeko konpromisoa hartzen du norberaren zein taldearen eskubideak garatuz.
- b) Ekintza zientifiko, tekniko eta artistikoaren arduratik, laguntza datorkigu gizakien sufrimendua eta injustizia sozialarekin amaitzeko eta Jainkoaren sorkuntzari laguntzeko.



4.3. Lana espiritualki bizi dena

- a) Gizon zein emakume guztiek lan duinerako aukera edukitzeko aukera bultzatuz norberaren garapenerako eta gizarteari laguntzeko bitarteko bezala.
- b) Norberaren garapenerako eta Jainkoarekin elkarlanean mundua hobetzeko bitarteko bezala.
- c) Bizi garen gizarteari lagungarri izateko gure trebetasunak eta sormen ahalmena garatzeko.
- d) Duintasunez bizitzea ahalbidetzen digun lan baldintzak eta soldata eskuratzeko guztion eskubidea eskatzeko.

4.4 Jainkoaren maitasuna bizitza aukera anitzetan bizi dena, ezkondata egon eta familia edukitzearen egoeran

- a) Gu Jainkoa haragitu bezala identifikatzen gaituen dimentsioa bezala. Honela nia gu bihur daiteke komunitate bizitzan zein komunioaren adierazpena den sexualitatearen bidez.
- b) Bizitza eman diegune eta haiekin aginduak gauden pertsonen zoriontsu eta osoak izateko aukera emanez. Honela munduan duten maitasunezko presentzia erakutsiz.

5. "FEDE ETA JUSTIZIA" ELKARTEARI GAGOZKIOLAKO DITUGUN ESPIRITUALTASUN EZAUGARRIAK

5.1. Politika arlotik egitura injustuen eraldaketaren ardura hartuz

- a) Gizarte anitz honetan tolerantzia onartuz eta bultzatuz guztion parte hartzea errespetatzeko.
- b) Injustiziak salatuz eta pertsonen zein herrien duintasuna errespetatzen duten erakunde politiko eta sozialen aldaketetan parte hartuz.
- c) Itxaropena duten gizon eta emakumeak izanez, hartzigarri bezala eroapenez aldaketak bizitzen dakitenak eta gizartearen aldaketarako bide berriak proposatuz.

5.2. Komunitate bizitzako anaitasunaren testigantza emanez

- a) Kideekin arlo desberdinetako gure erabaki pertsonalak banatuz eta alderatuz elkarri laguntzeko eta eskatzeko jarrera izanda.
- b) Giza baliabide eta materialak, dirua barne, banatuz gure komunitatean aukeren berdintasuna bultzatzeko.



Comunidades Cristianas Fe y Justicia
Fede eta Justizia Kristau Komunitateen Elkarte

- c) Egoera pertsonal zein senideko anitzak onartuz eta bakoitzaren askatasuna ulertuz egitismo komun baterako aberasgarria lortu.
- d) Otoitzaldi eta komunitatearen ospakizunetan iturri komunitik edanez.
- e) Eliza munduan egonazten "salbamendurako sakramentu unibertuala" bezala eta hau oztopatzen duten egiturak eraldatzeko konpromisoa hartuz.

Bilbao, 2000ko uztailaren 1a.